

Komunikatua

1971ko apirilaren 8an, duela 45 urte jada, Londresen, Ijito Herriaren Munduko lehenengo Kongresua izan zen. Erregimen naziak ijito herriaren aurka eragindako holokaustoaren oroitzapena bizirik mantentzea izan zen horren helburu nagusia. Egun horren bidez, oroimenean izan nahi ditugu ijito herriaren parte izateagatik erail zituzten 500.000 (bostehun mila) pertsonak.

Oroitzapena bizirik mantentzea da **IJITO HERRIAREN NAZIOARTEKO EGUNA**ren helburua, bai eta bere **bi** sinbolo garrantzitsuenak ofizial egitea ere: Ijito Herriaren **Ereserkia** eta **Bandera**. Egun horri esker, urtero, geroz eta pertsona, elkarte eta erakunde publiko eta pribatu gehiagok ondokoa ospatzen dute:

Ijito Herriaren Nazioarteko Eguna.

Nahiz eta egun horretan babes handia jaso, herri diskriminatuena eta baztertuen izaten jarraitzen du.

Errespetu eta oroitzapen zentzuari eutsita, aniztasunaren ospakizun bat izatea gustatuko litzaiguke, denon esfortzuarekin, kulturarteko gizarte batera aurrerapausoa emateko, berdintasun tratua eta ijito guztien eskubideak sustatuko dituen gizarte.

Hori dela eta, hau izenpetzen dugunok, herritarrei honakoa ADIERAZI nahi diegu:

1. Ijito herria ezberdina eta heterogeneoa da, ez da bat etortzen ikus-entzunezko ezberdinetan eta sare sozialetan ematen den irudi sozialarekin.

2. EUSKAL HERRIAN bizi eta lan egiten dugun PERTSONA IJITOAK BERTAKOTZAT HARTUAK IZATEKO LEGITIMATZEN gaitu herrialde honetan bizi izan dugun historiak, KULTURA ETA HIZKUNTZA PROPIO ETA AINTZATETSIENT jabe.

3. IJITO HERRIAREN EGOERAK HOBERA egiteko, ezinbestekoa da BATERAKO AHALEGINA, INSTITUZIO ETA ERAKUNDE IJITOEK elkarrekin lan eginda eta elkar babestuta. Gainera, aldarrikatzen dugu gure herriarentzako politikak eta planak diseinatzeko diren FOROETAN GU GEURE ORDEZKARI PROPIOAK IZATEKO eskubidea.

4. Hori dela eta, ESKERRAK eman nahi dizkiegu, gu bezala, kausa justu bat — hain zuzen, IJITO HERRIAK GIZARTEAN EGOKITZEN ZAION LEKUA

BETETZEN laguntzea— babesten duten pertsona guztiei, eta eskua luzatu nahi diegu Ijito Herriari laguntza eskaintzearekin bat egin nahi duten erakunde, instituzio eta pertsona guztiei.

SASTIPEN THAJ MESTIPEN
OSASUNA ETA ASKATASUNA

AGIFUGI- KAMELAMOS ADIQUERAR – ROMI BIDEAN- FUNDACIÓN
SECRETARIADO GITANO- CARITAS

Donostian, 2016ko apirilaren 8an